

LIBURU PROPOSAMENAK

2022ko OTSAILA

OIHANA (XIV. COMPOSTELA SARIA 2021) 0-6 URTE

Hitzik gabeko liburu bat da, bere irudien bidez paseo dibertigarri bat kontatzen duena. Hartan, ume batek, orrialde bikoitza hartzen duen paisaia batean, landareek usu betetako paisaia eder batean, ustekabez betetako abentura bat biziko du.

ZUHAITZERA IGO ZEN BEHIA

0-6 URTE

Marru ez da beste behiak bezalakoak. Biziki maite du bazter berriak ezagutu eta aztertzea, eta amestea. Baina nola erakutsi bere ahizpei belarra jateaz aparte badirela beste hamaika gauza bizitzan?

BABARREN BIDAIAK

6-8 URTE

Babar eta Celeste paisaiak gozatzen. Zer bidaia ederra! Bizi ezazu berriz, etxeko txikiarekin, haurren ipuinen lilura, irudi dotoreak dituzten istorio klasikoaren lilura. Eta, gero, segi gozatzen ipuinaren bukaeran dauden asmakizunak irakurritz.

ETXETIK AMERIKETARA

12-16 URTE

Maiak Euskal Herria utzi eta urtebeteko abentura hasi du Ameriketako Estatu Batuetan. Dena ongi doa, baina halako batean gelakide batek begitan hartu, eta beste kide guztiak aurka jarri zaizkio. Ayla estatubatuarra da, eta Maia ezagutu bezain laster bihurtu da honen lagun.

SANROKEETARAKO, ETXEAN

HELDUAK
GAUR EGUNGO LITERATURA

1937ko maiatza. Erresuma Batuak inoiz jasotako errefuxiatu-olderik handiena Southamptongo portuan lehorreratzean da, eta inork ez du halako gertakizun bat huts egin nahi. Santurtzitik atera den itsasontzian, Habana izenekoan, ia lau mila haur, eta horien artean Pirmin, Eusebio eta Aurea lekunberritar anai-arrebak. Sanrokeetarako etxean izanen direla, hala esan diete portuan agurtu berri dituzten gurasoek.

HAMNET (WOMEN'S PRIZE FOR FICTION 2020) HELDUAK

1596. urtea, Stratford-upon-Avon, Ingalaterra. Agnesen bizitza lasai igarotzen da senarrarekin eta hiru seme-alabekin. Berak sendabelarrak landatzen ditu Williamek Londresen lan egiten duen bitartean. Patuak, ordea, kolpe latza emango die hamaika urteko Hamnet semea bat-batean hiltzen denean izurriteak jota.